

Erasmus ikasleak primeran ari dira moldatzen Euskal Herriko bizimodura

2009/10/06

Inoiz baino ikasle gehiago etorri dira aurten Erasmus programaren barruan, 14, eta izugarri ondo ari dira denak ere moldatzen Euskal Herrira, bai ikasi eta praktikak egiteko, baina baita bidaiatu eta parranda egiteko ere.

Aurten, adibidez, Erasmus ikasleetatik **zortzi** animatu dira Udalatx mendia igotzera. Lehendabizi Corina, Morten eta Tiina joan ziren mendian gora Udala auzotik abiatuta, eta, hain pozik itzuli ziren, ze bi egun geroago beste bost irten ziren Udalatik gora: Valerie, Feryal, Sanne Vanmechelen, Dexter eta Evelien. Webgune berezi batean ikus daitezke igoerako argazkiak.



Erasmus guztiak batera

Irailaren 30ean, berriz, HUHEZIKoak ez ezik, Mondragon Unibertsitateko gainerako Erasmus ikasleak ere elkartu ziren Eskoriatzan, denak hobeto ezagutu dezaten elkar. Saio berezia egin zuten areto nagusian, eta bertan Joxe Mari Aizega errektoreorde akademikoaren ongi etorriko hitzak jaso zituzten. Ondoren, bazkaldu egin zuten elkarrekin, eta tarte hori baliatu zuten telefono zenbakiak eta helbide elektronikoak trukatzeko.



Maritxu Kajoi festan

Ilusio bereziz prestatu zuten Erasmus ikasleek Maritxu Kajoi festa. Hona etorritakoan jakin zuten jaiaren berri, eta berehala jarri ziren lanean, arropa aproposak lortzeko egun horretarako. Egund hori zela-eta, Goiena Telebistak albiste bat egin zuen eurekin.

